

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

289/2024 Foru Agindua, maiatzaren 21ekoa. Arabako Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz udalerrietako lurzoru urbanizaezinean, Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan berezia onesteko prozeduraren aurreko izapidea

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren martxoaren 19ko 109/2024 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan bereziaren eraginpean dauden udalei bi hilabeteko epea ematea akordio bat lortzeko, zeinaren bidez haietako batek bere gain hartuko baitzituen planaren izapidetzea eta onespena.

Foru agindu hori 2024ko martxoaren 22an jakinarazi zitzaion Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalei.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingu-rumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2024ko martxoaren 25eko Dekretuaren bidez, uko egin dio Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetu eta onesteari. Ebazpen hori 2024ko apirilaren 4an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

Bestalde, Arratzua-Ubarrundiako Udalak, udalbatzaren 2024ko apirilaren 24ko ohiko bilkuran, adierazi zuen udalbatza osatzen duten hiru alderdien ordezkariak eta alkateak bilera bat izan zutela aurreko egunean, apirilaren 23an, Vitoria-Gasteizko Udaleko hirigintza arloko zinegotzi arduradunarekin, eta, egindako bileratik ondorioztatzen denez, Vitoria-Gasteizko Udalaren jarrera dela lurzoru urbanizaezinean udalerrri bati baino gehiagori eragiten dieten plan berezi guztien izapidetzea Arabako Foru Aldundiak bere gain hartu behar duela, eta behin baino gehiagotan errepikatu zuela hori bileran. Ondoren, Arratzua-Ubarrundiako Udalak erabaki zuen administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea 2024ko martxoaren 25eko Dekretuaren aurka, zeinaren bidez Vitoria-Gasteizko Udalak uko egiten baitio plan berezia izapidetzeari. Erabaki hori 2024ko apirilaren 26an jakinarazi zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

2024ko maiatzaren 9an, Arabako Foru Aldundiak Vitoria-Gasteizko Udaleko Hirigintzako zuzendari nagusiaren komunikazio bat jaso zuen, eta komunikazio horretan 2024ko apirilaren 26ko idazkia erantsi zuen, bi udaletako ordezkariak apirilaren 23an egindako bilera horri buruzkoa. Idazki horretan adierazi denez, bileran ez zen akordiorik lortu Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetzeko, eta Vitoria-Gasteizko Udalak adierazi zuen Arabako Foru Aldundiak hartu behar zituela bere gain plan berezi horren izapideak.

Ondoren, Arratzua-Ubarrundiako Udalak, udalbatzaren 2024ko maiatzaren 13ko bilkura berezian, erabaki zuen aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko erabakia errebokatzeko, Vitoria-Gasteizko Udalar eskatzea udalbatzak Arratzua-Ubarrundiako Udalak plan bereziaren izapideak bere gain hartzearen aldeko iritzia eman dezan, eta Arabako Foru Aldundiari eskatzea bi korporazioen artean akordio bat lortzeko emandako bi hilabeteko epea luzatzeko. Erabaki horiek 2024ko maiatzaren 13an jakinarazi zitzaizkion Arabako Foru Aldundiari.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak du aztergai den espedientea ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegitzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik.

2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorri egin, izapidetu eta onetsiko direla. Gainera, 95.1 artikuluan ezarrita dago plan partziala egitea hasiera batean udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere egin dezaketela.

Ez dago 2/2006 Legearen 5/1998 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik. Bertan zehazten zen udalaz gaindiko plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespina emateko eskumena, eraginpeko udalerrien artean akordiorik ez dagoenean, dagokion foru aldundiari dagokiola, salbuetsiz hainbat lurralde historikotako udalerriei eragitea. Kasu horretan eskumena Eusko Jaurlaritzarena litzateke.

Legezko hutsune hori judizialki ebatzi da antzeko moduan udalerriri bati baino gehiagori eragiten dieten plan berezientzat 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko planentzat ezarritako eskumen arauak aplikatuz.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta bertan aurreikusita dago foru esku hartzea egongo dela bakar-bakarrik eraginpeko udalerriek horretarako akordiorik lortu ezean:

“1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerriri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki-entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

2. Akordiorik ez badago, foru-organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badiot– edo Autonomia Erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badiot– bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru-administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak –dagokionak– bateragarritze-plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki-entitateei.”

Eta epeak luzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 32.1. artikuluan: “administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badiot, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie.”

Emandako epea amaitu baino lehen, kontuan hartuta Arratzua-Ubarrundiako Udalak plan bereziaren izapideak bere gain hartzeko interes berezia eta behin eta berriro erakutsi duela, plan bereziaren eraginpeko lurzoru gehiena bere udalerrian baitago, eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez zaiela iritzita, komenigarritzat jotzen da bi udalen artean akordioa lortzeko hasiera batean emandako bi hilabeteko epea hilabete luzatzea. Epe hori luzaezina izango da, eta hasierako epea 2024ko maiatzaren 22an amaitzen zenez, epe berria urte bereko ekainaren 22an amaituko da. Egun hori iritsita, bi korporazioek akordioa lortu izana modu frogagarrian jasota ez badago, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartuko du plan berezia izapidetzeko eta, hala badagokio, onesteko eskumena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoaren plan bereziaren eraginpean dauden udalei epea hilabete luzatzea, hasieran emandako bi hilabeteko epeari gehituz; beraz, 2024ko ekainaren 22an bukatuko da epea udal horietako batek planaren izapidetzea eta onespina bere gain hartzeko akordioa lor dezaten.

Plan bereziaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa eraginpeko udalen eskura egongo dira Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren webgunean (www.araba.eus: <https://web.araba.eus/es/urbanismo/planes-especiales-parques-eolicos-y-fotovoltaicos>) eta zerbitzu horren egoitzan (Probintzia plaza 5-1.a, Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta beronen aurka ezin da errekursorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 21a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA